

KARDABERAZEN BESOA EDO ERLIKIA PREZIATU BATEN IBILBIDEA

Urko Apaolaza

1908ko maiatzaren 2a egun handia izan zen hernaniarrentzat. Herriko seme kuttun aita Kardaberaz (1703-1770)¹ arrastoak Euskal Herrira itzuli ziren anai artean deskantsatzeko. Jakin badakigu, pertsona bat desagertzen denean, haren hezurak ezin ikus ditzakegunean eta non negar egin ez dagoenean, senide eta lagunen artean sortzen den ezinegon samina. Halako zerbait behar zuten izan Agustin Kardaberaz miresleek eta horregatik poztu ziren hainbeste jesuitaren gorpuzkinak aberriratu zituztenean, duela mende bat hain justu.

Italiako Bolonian aurkitu zuten elizgizonaren gorpua galdua, Castel San Giovanni izeneko herriko eliza batean. Nola bukatu zuten Kardaberaz hezurrek mediterraneoko parte horretan? Historia jakina da: 1766an ez zen giro Euskal Herrian, hainbat matxinada izan ziren lehengaien prezioen gorakadagatik –egun, munduko txoko askotan gertatzen ari diren bezalakoxeak– eta, horrez gain, Jesuiten ordenaren kontrako haizeak zebiltzan Europa osoan.



Carlos III. erregeak ez zuen denborarik galdu eta jesuitak bere erreinutik kanporatzeko agindua eman zuen. Horrela, 1767an Kardaberaz preso hartu zuten beste hainbat jesuitekin.

Itsasontzi batean sartu eta Civitavecchiara, Erroma ondoko portura, bidali zituzten. Aita Santuak bizkarra eman zien eta azkenean Bolonian bukatu zuen hernaniarrak, jadanik zaharturik. 1770ean hil zen gaixotasun baten ondorioz eta anonimatu gordinenean eroriko zen baten bati ez balitzaio okurritu hilobiratu zuten lekuan larruzko pergamiño bat lurperatzea kaxa batean sartuta; bertan, elizgizonaren izen-abizenen ondoan, *Obiit cum fama sanctitatis* jartzen zuen. Gorpua gordetzen zuen hilkutxaren bi giltza zeuden, bata Gaztelako Jesuiten arduraduna zen Lorenzo Uriarteri eman zioten eta bestea Ludovico Gundi eliza hartako artzapezak jaso zuen. Urte batzuk beranduago Kardaberaz ilobak hezurak leku horretatik atera eta Xabierko San Franziskoren aldre azpian lurperatu zuten berriro, tenplu berean, han ego kiago zeudelakoan. Geroztik, hautsaren pilatze etengabeak eta denbo-

¹ Agustin Kardaberaz jesuita eta idazle hernaniarraren bizitzaz gehiago jakiteko ikusi, besteak beste, honako lan hauek: FONSECA, Julián: *Compendio de la vida del P. Agustín Cardaberaz*, Imprenta Tejado, Madril, 1862; eta honen aldaera: Ezezaguna ("Apaiz batek"): *Aita Agustín Cardaberaz jaincoaren serbitzari andiaren berri laburrak apaiz batek euskeraz jarriac*, Florentino Elosuaren moldiztegia, Durango, 1908. GONZALEZ, Gaspar: *Ardores de un serafín: el p. Agustín de Cardaberaz*, Rafael I. Aldecoa moldiztegia, Madril, 1924. PÉREZ, Elixabete; ZULSIKA, Esther (ed.): *Agustín Kardaberaz. Hirugarren Mendeurrena. 1703-2003*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 2004. ONAINDIA, Santi: *Euskal Literatura I*, Etor, Bilbo 1972. MUJICA, Gregorio: *Ernaniar ospetsuak: Iturriaga, Kardaberaz, Urbieta, Baroja eta semearen moldiztegia*, Donostia, 1910.

raren joanak erabat lurperatu zuten idazle handiaren gorpua, ez ordea haren memoria.

Agustin Kardaberazen gorpuzkinak aurkitu eta Euskal Herriratztea ez zen erraza izan, diplomazia eta elkarlanaren adibide garbia dugu, traba ugari gainditu behar izan baitzituzten horretaz arduratu zirenek. Seguruena, ezinezkoa litzateke horrelakorik egitea Loiolako jesuiten laguntzarik gabe. Ordena erlijiosoak Italian barrena zuen sare trinkoari esker eman zuten fruitua egindako peskiza eta gestioek, haiengatik topatu zituzten gorpuzkinak. Hernaniarraren kondarrak aurkitu eta aberriratzeko asmoa 1903an hasi zen, bere jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko egindako ekitaldian.



Mendeurrenaren haizeak aprobetxatuz.

1903ko abenduaren 28an, Inozente egunez, Txirritaren ahots tinbrea Kardaberazen omenez aritu zen kantari. Ezkiaga pasealekuko Birebendarren etxean festa handia antolatu zuten Agustin Kardaberazen jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko eta postrea iritsi zenerako bertsolarien ateraldiek ekitaldia girotu zuten. Aurretik, goiz partean, ehunka lagun izan ziren jesuita maitatuaren aldeko mezan.

Izan ere, hernaniarrek oso gogoan zuten aita Kardaberazen irudia, urte gutxi zituela familiarekin Donostiara aldatu zen arren, Hernaniarekin lotura sendoa mantendu baitzuen. Valladolid eta Palencian Filosofia eta Teologia ikasketak bukatu ondoren, askotan izan zen gurean idazle handia; osasun kaxkarra zuen eta medikuak atsedena agindu zion, horregatik, denboraldi luzeak pasatu zituen bere osaba apaiaren Hernaniko etxean.

Agustin Kardaberaz bere idazlanengatik da gaur egun ezagun euskaltzaleen artean, euskara erabiltzen

zuelako erlijioa zabaltzeko tresna moduan. Baina egiaz, duela mende bat, obra ebanjelizatzaile ikaragarria eta kristau bizitza eredugarria ere aitortzen zitzaion. Ez da harritzekoa sasoi hartako medioek elizgizonaren kanonizazioa behin eta berriz aldarrikatzea; horrela zioen egunkari ezagun batek ospakizunaren egunean: "Gure esku egongo balitz, gestioak egingo genituzke bere beatifikazio eta kanonizazioari hasiera emateko; eta ez dugu zalantzarik egiten Gipuzkoan, eta batez ere bere sorterrian den Hernanin, poztasun handiz hartuko lirakeela gure Diputazio agurgarriak bide horretan egindako ahaleginak"². Eta zer hobeto, kanonizazioa bultzatzeko, santu-gaiaren gorputza erreskatatzea baino?

"¡Gora Kardaberaz! deitu zuen alkateak, eta ozteak bat-batean ¡Gora! erantzun zuan"³. Gregorio Mujika kronista donostiarraren hitzak arrunt esanguratsuak dira sasoi hartan Hernaniko jesuitaren aldeko giroa nolakoa zen ikusteko. Zalantzarik gabe, bigarren mendeurrenaren ospakizun hura izan zen Kardaberaz aberriratzeko gogo haizatu zuen hauspoa.

Jesusen lagun detektibeak.

Udalean batzorde berezi bat osatu zen Kardaberaz sorterrira ekartzeko lanen jarraipena egiteko. Negoziazioak bi aldetara egin ziren: Hernaniko Udala alde batetik eta Loiolako jesuitak bestetik. Bien artean adostu zuten gorpuzkinak Loiolan hilobiratuko zirela, baina eskubiko besoa, idazteko erabiltzen zuena, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen elizan gordeko zen. Hala ere, lehenik eta behin gorputza non zegoen jakin beharra zegoen, hainbeste urteren ondoren ez baitzegoen haren arrastorik eta zalantza ugari zeuden horren inguruan. Ikerketa eta gestio horiek jesuiten esku utzi zituen Udalak eta hainbat urte behar izan ziren lehenengo emaitzak jakiteko.

1907an, bi erakundeen artean zubi lanak egin zituen Hernaniko bikarioak, Alfontso Zabalak, Loiolako errektorearen gutuna jaso zuen. Cesareo Iberok gutun horretan bikarioari jakinarazi zion Kardaberazen kondarrak aurkitu zituztela eta Hernaniko Udalaren erantzuna bizkor behar zuela aukera hori ez galtzeko⁴. Badirudi udaleko ordezkariak ezus-

² La Constanca. Diario Íntegro Fuerista, 1903ko abenduaren 29a.

³ MUJICA, Ibid., 52 or.

tean harrapatu zituela albisteak; izan ere, oraindik ez zuten aurkitu San Joan elizan Kardaberazaren besoaren kondarrak jartzeko lekurik eta Loiolako errektore Iberori bidalitako erantzunean azaltzen zutenez denbora beharko zen horretarako. Horregatik, gorpuzkinak zuzenean Loiolako Santutegira eramateko baimena eman zieten jesuitei.

Dena den, oraindik beste urtebete igaro zen Agustin Kardaberazaren kondarrak Euskal Herrira ekarri arte. 1908an jakinarazi zuen notizia Zabala bikarioak, Aita Kardaberazaren kondarrak bidean ziren⁵.

Kardaberaz, kristau eta idazle bene-ratua.

Kardaberazek bere bizitzako azken urteetan idatzi zituen lanik sonatuenak. Ordurako ezagunak zituen Mendiburu eta Larramendi, Loiolako eskolan egonak baitziren hirurak. Hain zuzen, azkeneko hori izan zen Kardaberazaren maisu hurbilekoena. Hernaniarrak bere idatziak bidaltzen zizkion Manuel Larramendiri eta hark zorrotz zuzentzen zizkion, hain zorrotz, ezen bi adiskideen arte hika mika ugari izaten zituzten. Ehin, Larramendiren zorroztasun gogorarekin gogaiturik, honela idatzi zion Kardaberazek idazle andoaindarrari: "Hain gauza miragarriak idatzi ditu berorrek eta hainbeste libururascuenceari buruz edo bascuenceaz, bat bera ere ez duela idatzi bascuencez! Oxala sermoi asko eta asko idatzi balitu eta oraindik doktrina gehiago! Guztioi fabore handia egingo liguke eta hitz egiten eta idazten erakutsiko liguke guztiz" (euskaratua)⁶.

Dena den, Kardaberazaren idazkeraz asko hitz egin da. Gaztelan urte mor-doa egin zuen misioak emanez eta askori harrigarria egiten zaio ama hizkuntza hain ondo gorde eta menperatzea. Hala ere, batzuen ustez era-


biltzen zuen euskara ez zen hain ego-kia, horra zer zioen Orixek: "Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztan-keraz ez euskaldunak geienaz. Oso gizon Jainkotia zen eta Santutzat zedukatena. Bere burubide ta burutapenak oso erderaz ernatzen zituen eta euskeraz ezin esan"⁷. Kardaberazek idatzitako lan guztiek erlijioaz hitz egiten zuten, batek izan ezik, *Euskararen Berri Onac*, bere lanik onena askoren aburuz.

Duela bost urte Euskaltzaindiak antolatutako *Kardaberaz Urtean* hernaniarraren alderdi erretorikoa sakon aztertu zuten. Izan ere, jesuitaren erretorikarako gaitasuna izugarria zen, ez idatziz bakarrik, misioetan ere izugarria omen zen erabiltzen zuen elokuentzia eta askotan eliza barruetan jendea ez zen kabitzen bere sermoiak entzuteko. Kardaberazi, ordea, ez zitzaion euskara erlijioa bezainbeste axola. Hizkuntza tresna

bat zen beretzako, ebanjelioa zabal-tzeko tresna besterik ez. Fededuna baitzen oso, 12 urterekin lehenengo "agerpenak" izan omen zituen bere biografoen arabera eta penitentzia gogorak jartzen zizkion bere buruari (zilizioa, baraualdiak...)⁸. Ez da harritzekoa askoren ustez santu izateko jaioa izatea.

Hernanira bidean.

1908ko maiatzaren 2an Probintziako egunkari nagusienek notizia azalean kaleratu zuten: "*Kardaberaz Aitaren kondarrei harrera egingo zaie gaur*". Loiolako Santutegian guztia prest zegoen eta agintari politiko nahiz erlijioso gorenak gonbidatu zituzten momenturako. Lantegiek ateak itxi zituzten herritarrek harrera ekitaldi-ra joan zitezen eta Azkoitiko udal banda jo eta su aritu zen eguna giro-



Kardaberazi buruzko artxiboetan kontsultatuko hainbat dokumentu.

⁴ Hernaniko Udal Artxiboa (HUA), *Kardaberaz espediente*, Alfontso Zabala bikarioaren gutuna, 1907ko uztailaren 17an idatzia.

⁵ Ibid. 1908ko gutuna.

⁶ ALTUNA, Patxi: "Aita Agustin Kardaberaz Elgorriagaren bizitza", in PÉREZ, E.; ZULSIKA, E. (ed.), *ibid.*, 38 or.

⁷ ORMAETXEA, Nikolas Orixek, "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra. Kardaberaz", *Euskal-Esnalea*, 1927.

⁸ ALTUNA, Belen, *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia*, Alberdania, Irun, 2003, 101-102 orr.

tzen. Gorpuzkinak trenez iritsi ziren Zumarragara, handik autoz garraiatu zituzten Loiolaraino. Arratsaldeko sei eta erdietan iritsi zen kotxe funebrea; ordurako Santutegia lepo zegoen. Elizkizunen ondoren Italiatik etorritako María Purísima superiorak Kardaberazen kondarrak eman zizkion Aita Cesareori. Hurrengo egunean, igandea, kutxa ireki eta kondarrak atera zituzten bertatik, metalezko kaxa batean eta oihaletan bildutako errautsak. Adostu bezala, Loiolako eskolako errektoreak errautsen zati bat eman zion Hernaniko alkate Felipe Minerri, zilarrezko kutxatxo batean sartuta; hura zen Kardaberazen "besoa". Gero, egun osoko festa izan zen, bazkari eta guzti, eta arratsaldez bueltatu ziren Hernaniko agintariak herrira⁹.

Maiatzaren 4an, Hernaniko elizan elkartu ziren berriz ere, alkate, kontzejal, elizgizon, epaile, diputatu eta beste hainbat eta hainbat herritar. Mezaren ondoren notarioak guztia-
ren berri eman zuen: "*Aurretik adostu bezala, Aita Agustín Kardaberazen gorpuzkinen zati bat gorde nahi dute Eliza Santu honetan horretarako bideraturiko lekuan, bertan kontserbatu daitezen bere oroitzapen beneratu bezala, eta betirako gera dadin gizon preziatu baten izen glorioso*"¹⁰. Kondarrak uzteko lekua egina zegoen jadanik, aldare nagusiaren aldameneko horman zulo bat egokitu baitzuten. Aurreko egunean emandako erlikia-ontzia marmol zurizko kutxa batean sartu zuten eta kutxa hori elizako hobi horretan. Eta hor segitzen du, gaur arte, idazle handi baten erlikiak, Kardaberazen besoak.



⁹ El Correo de Guipúzcoa. Órgano vascongado del tradicionalismo, 1908ko maiatzaren 4a.

¹⁰ HUA, ibid., Lopez de Zubiria notarioaren akta.